




Etxebizitzaren Gida Plana Plan Director de Vivienda

SINTESIA


Etxebizitza Gida Plana 2021-2023

ETXEBIZITZAREN GIDA PLANA 2021-2023 ETA ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA 2021-2036



Aurkibidea

1.	XEDEA ETA IKUSPEGIA	3
2.	NORTASUN EZAUGARRIAK	4
3.	EDUKI ETA MAGNITUDE NAGUSIAK	5





1.

XEDEA ETA IKUSPEGIA

XEDEA

Etxebizitza duin eta egoki baten beharra duten pertsoneri erantzun integrala bermatzea, eta, horretarako, alokairu eskuragarriko eta etxebizitza-parkearen bizigarritasun- eta jasangarritasun-baldintzak hobetzeko baliabide-eskaintza areagotzea.

IKUSPEGIA

Etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatuko duten prestazioen sistema ezarrita eta finkatuta edukitzea, alokairu eskuragarriko etxebizitza-parkearen hazkundea eta kohesio soziala erraztuz; horretaz gainera, etxebizitza-parke publiko eta pribatua birgaitzeko bidea bultzatzea, eta, horretarako, Europako Funtsak optimizatzea, birgaitze-politiken aldaketa estrategiko bat sustatuz –alegia, eraikinen kalitatea eta bizigarritasuna, birgaitze integrala, irisgarritasuna, energiaren efizientzia, inpaktu klimatikoa murriztea eta berrikuntza–.

2. ETXEBIZITZAREN GIDA PLANAREN NORTASUN-EZAUGARRIAK 2021 – 2023

- 1** Ekimen publiko eta pribatuko **alokairu babestua sustatzearen aldeko apustua** indartzea, alokairu babestuko erregimenean eraikitzea sustatzeko, etxebizitza eskuratzeko eta alokairu eskuragarriako formula alternatibo berriak txertatuz. Datozen 15 urteetan etxebizitza babestuen parkea bikoiztea da helburua.
- 2** Jenderik **gabeko etxebizitzak mobilizatzeko programak** indartzea (Bizigune eta ASAP) alokairu eskuragarriantz bideratzeko, familia gehiago bizi ahal izan daitezen alokairu libreko etxebizitza batean, beren errentaren arabera merkatuko prezioen azpitik dauden zenbatekoak ordainduz, diru-sarreren arabera.
- 3** Etxebizitzarako **eskubide subjektiboa aitortzeko** bidean aurrera egitea, eta, ildo horretan, geure gain hartzea Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren kudeaketa. Horrek esan nahi du, gainerako prestazioekin batera, hamarnaka mila pertsonak eta familiak izango dutela laguntza bat alokairua ordaindu ahal izateko.
- 4** Jauzi kuantitatibo eta kualitatibo bat lortzea **birgaitze-politikan**. Birgaitze integrala, irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa biziki sustatuz, aurrekontua eta helburuak bikoiztuz aurreko planarekin alderatuta, eta eskabideen kudeaketa arinduz eta erraztuz. Eskabideen kudeaketa arinduz eta erraztuz. BHSen aldeko apustua egitea, dinamizatzaile gisa
- 5** Alokairu-eskaintza handituko duen, prezioen kontrola erraztuko duen eta birgaitze-kenkariak optimizatuko dituen **fiskalitatearen** aldeko apustua egitea.

3. EDUKI ETA MAGNITUDE NAGUSIAK

3.1. ETXEBIZITZAREN GIDA PLANAREN ARKITEKTURA 2021 – 2023

Plana oinarrizko hiru ardatzen inguruan egituratzen da, plana kudeatzeko eta ezartzeko prozesua ahalik eta gehien sinplifikatzeko, bai eta urteko balantzea eta ebaluazioa ere, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren bitartez..



ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATZEA EUSKADIN

> **Estrategia**

- 1.1. Babes publikoko etxebizitza-parkea areagotzea
- 1.2. Etxebizitza eskuragarria bermatzera bideraturiko baliabideen eta prestazioen sistema garatzea
- 1.3. Jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzea



BIZITEGI-ERAIKINEN PARKEAREN GAINEKO JARDUKETAK

> **Estrategia**

- 2.1. Eraikinen eta etxebizitzaren parkea birgaitzea
- 2.2. Kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea eraikuntzan eta birgaitzeetan
- 2.3. Eraikuntza-sektorea eta enpleguaren kalitatea indartzea
- 2.4. Birgaitzeko hirigintza-sozietateekin, udalekin eta etxebizitza sozietate publikoekin koordinaturik jardutea, herritarrei arreta hobea emateko eta birgaitze-agentearen figura sustatzeko



GOBERNANTZA SISTEMAK eta KOORDINAZIO INSTITUZIONALA

> **Estrategia**

- 3.1. Gobernantza- eta jarraipen-sistema
- 3.2. Babes publikoko egoitza-sistema garatzeko zerga- eta finantzaketa-politika
- 3.3. Etxebizitza-politiketako koordinazio-sistemak



Etxebizitzaren Aldeko itun Soziala **2021-2036**

3.2. ZER JARDUERA MOTA BILTZEN DITU ARDATZ BAKOITZAK?

> 1. ardatza Alokairuko etxebizitza arrazoizko prezioan sustatzera bideratutako ildo estrategikoak eta ekintzak biltzen ditu.

Hori osatzen duten hiru estrategia handiek askotariko ekintzak biltzen dituzte, eta horien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- a.** Alokairuko etxebizitza sozialen sustapena bultzatzea, Eusko Jaurlaritzak eta beste administrazio batzuek bultzatutako sustapenaren bidez, bai eta ildo berrien bidez ere, hala nola agente pribatuen bidez etxebizitza babestuak sustatuz. Horrela, **Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak zuzenean sustatutako etxebizitza guztiak alokairu-erregimenean izango dira**, eta jabetza-erregimenean sustatutako etxebizitza babestuak autofinantzatu egin beharko dira, eta ez dute baliabide publikorik kontsumituko.
- b.** **Alokairurako prestazioen eta laguntzen sistema** berrantolatzea eta garatzea. Sistema horrek estaldura zabala ematen die alokairu-errenta ordaintzeko zailtasun handienak dituzten pertsona eta familiei, urtean EAEko 30.000 etxeri baino gehiagori lagunduz.
- c.** Berriazko estrategia bat, **jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzea bideratutako jarduketa-dispositibo bat barne hartzen duena**, Bizigune bezalako programa arrakastatsuen eta jenderik gabeko etxebizitzari eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriei buruzko ekainaren 8ko 149/2021 Dekretuak jasotzen dituen neurrien bitartez.

> 2. ardatza Funtsezko hainbat estrategia artikulatzen ditu Euskadiko etxebizitza-parkearen etorkizunerako, eta garrantzi handia ematen dio eraikinen eta etxebizitzaren parkea birgaitzeko estrategiari, datozen urteetarako birgaitutako eraikinen eta etxebizitzaren helburuetan jauzi kualitatibo bat planteatzen baitu.

Eremu horretan, hainbat ekintza-ildo proposatzen dira, besteak beste:

- a.** **Elementu pribatiboak eta komunak birgaitzeko laguntzak** indartzen dituzten neurriak, bai EBko funtsak optimizatuz energia-eraginkortasuna handitzen duten obren kasuan, bai Eusko Jaurlaritzak irisgarritasunerako laguntzak nabarmen handitzeko egiten duen apustuaren kasuan.
- b.** **Herritarrei informazioa eta arreta emateko zerbitzua hobetzeko erakundeen arteko koordinazio-sistemak hobetzera** bideratutako jarduerak, laguntza-sistamarako sarbidea sustatze aldera.
- c.** **Eraikuntzan eta birgaitzean kalitatea eta berrikuntza sustatzera bideratutako bi estrategia espezifiko, eraikuntzaren sektorea** eta enpleguaren kalitatea sustatzen laguntzekoak.

> 3. ardatza Hainbat jarduera-ildo biltzen ditu, funtsezkoak direnak gobernantza eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko, eta bereziki garrantzitsua da etxebizitzari lotutako zerga-politika berrikustea, plan honetako estrategiekin bat etor dadin.

Azkenik, **Plan berri hau egiteko egindako lan-prozesu zabala** nabarmendu behar da, sektoreko 70 eragilek baino gehiagok parte hartu baitute, bai eta 2.400 herritarrek baino gehiagok ere, hainbat kontsulta-mekanismoren bidez.

3.3. HELBURU KUANTITATIBO NAGUSIAK

El Plan Director de Vivienda 2021-2023 plantea una serie de ambiciosos objetivos cuantitativos hasta 2023:

1. Euskadiko alokairu babestuko etxebizitzaren parkea handitzea

...**3.000 unitate baino gehiagotan, 29.300 etxebizitzara iritsi arte 2023ra arte.**

...Horrenbestez, **alokairuko parke publikoaren kuota parke babestuaren % 40an kokatu behar da**, 2018-2020 aldian baino 6 puntu gehiago.

2. Alokairua ordaintzeko laguntzen eta prestazioen sistema finkatzea eta garatzea

- 2023ko **etxebizitzarako eskubide subjektiboaren onuradun kopurua 12.000 etxeokoen unitatetan** kokatu arte
- Euskadin alokairu librean bizi diren etxeokoen unitateen heren bati baino gehiagori eskaintzen die, eta nabarmentzekoa da gaur egungo **Etxebizitzarako Prestazio Osagarria, 28.500 familia onuradun baino gehiagorekin.**
- **10.500 laguntza eman dira** Gaztelagunen bidez 2021etik 2023ra bitartean gazteen **alokairua ordaintzeko.**
- **Alokairua ordaintzeko laguntzak emanez 4.500 gazteri/gazteak dituzten etxeei** Gaztelagunen bidez 2023ra arte

3. Euskadiko eraikinen eta etxebizitzaren parkea birgaitzea bultzatzea

- **2021-2023 aldian birgaitutako 71.280 etxebizitzara iritsita**, aurreko 2018-2020 Planeko gauzatze efektiboaren bikoitza baino gehixeago,
- Helburu horren barruan, honako helburu hauetara bideratutako finantzaketa- eta laguntza-ahalegin handia nabarmendu behar da:
 - o Etxebizitzaren birgaitze integrareko 35.000 proiekturi laguntzea.
 - o 2023an irisgarriak izango diren eraikinak eta etxebizitzak dituzten 15.000 etxeren finantzaketa
 - o Efizientzia energetikoa hobetzea 7.000 etxebizitza baino gehiagotan, diru-laguntzen maila garrantzitsuetan.
 - o Birgaitze prozesuen ondoren sortutako 3.000 etxebizitza sortzea.

3.4. AURREKONTU-MAGNITUDE HANDIAK

Para financiar estos objetivos, **el coste presupuestario del Plan Director de Vivienda 2021-2023 asciende a 1.237,6 millones de euros** y contempla el gasto consolidado que ejecuta tanto la viceconsejería de vivienda, como las sociedades públicas Visesa y Alokabide una vez eliminadas las interrelaciones mutuas de gasto. entre sociedades primero, y entre estas y el programa de vivienda, después.

El gasto fiscal asociado a la vivienda para el período 2021-2023 se estima en 1.263,6 millones de euros, por primera vez se mueve en cifras muy similares al gasto directo presupuestario, rompiendo así una tendencia histórica en que el gasto fiscal vasco ha sobrepasado en mucho al gasto directo en vivienda. Hay que recordar que este gasto consiste en una reducción de ingresos tributarios considerable y una apuesta de política de vivienda que realizan las Diputaciones Forales a través de la fiscalidad.